



Luk BENIES | AFP



IKUSMIRA

HIRI SANTUTIK HIRI SANTURA MARRA GORRI GUZTIEN GAINETIK

Jerusalem hirian hasi zen eta Erroman amaituko da aur-
tengo Giroa. Historian lehen aldiz lasterketak Europa
utzi zuen zaletuok gogoan ditugun etaparik asperga-
rrienak egiteko: bigarrena autobide zabal batean egin
zuten; eta hirugarrena, Israelgo hegoaldeko puntara
basamortuan zehar doan errepide batetik barrena. Eta

lehenengo etapa Jerusalemen egin zuten, egunotan lehen aldiz beste herrialdeetako enbaxadak
hartzen ari den hiria. Izan ere, estatu gehienek Tel Aviven dute ordezkaritza ofiziala, nazioarteak
ez baitzuen onartzen gatazkaren erdian dagoen hiriburua alde batek, Israel okupatzaileak, bere-
ganatzea. Baina Trump presidenteak marra gorri hori ere zeharkatzea erabaki zuen eta berak
urratsa egin bezain pronto, beste batzuek gauza bera egin dute. Eskerrak argazkian ageri diren
herritarrek gauzak nola dauden laburtu duten pankartan, Sizilian. joseangel.oria@gaur8.info